

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak beharrezkoak dira enpresa aurrera eramateko, hau da, enpresak behar dituen oinarrizko aktiboak dira. Gure negozioak, lepokoak webgune baten bidez saltzen baditu ere, gure lepokoaren funtzioak modu aktibo eta fisiko batean konpontzen dira. Hori dela eta, gure funtsezko baliabideak, langileak izango dira batez ere, baita beharrezko objektu teknologikoak. Langile horien barnean, psikologoak, segurtasuneko taldeak eta administrazioaileak egongo dira besteak beste, eta bakoitzak einbestekoa izango den funtzioa beteko du prozesuan.

Hasteko, psikologoak beharrezkoa den postu bat beteko du, ezinbestekoa. Gure lepokoak “konponduko” dituen egoerak biktimari mentalki modu txar batean eragiten badio, pertsona honek, langile honek psikologikoki lagunduko dio. Beti, bezeroaren ongizateari erreparatuz. Horrelako prozesuetan langile mota honek papel garrantzitsua hartuko du egoera likatsuetan. Alerta egoerak bezeroaren osasunean uste baino gehiago eragiten badu, psikologoak sendatze prozesu horretan lagunduko du. Hasiera batean, osasun mentalaren azterketa bat egingo da, pertsonala, horren arabera egin beharrekotratamendu bat diseinatzeko, pertsona bakoitzari tratamendu mota bat eskainiko zaio.

Are gehiago, segurtasuneko talde bat egongo da, non alerta botoia sakatzean agertuko dena pertsona kaltetuaren sagurtasuna bermatzeko. Taldeko lan bat egingo da, eta aurretiaz prestakuntza bat egingo da. Biktimak erasoak jaso eta erasotzailearekiko urrentzea beharrezkoa ikusten badu, talde berak eramango du prozesu bera. Erasotua izan eta urrutze prozesua hasi baino lehen, talde honen eta biktimaren arteko konfidantza landuko da jarduerak ezberdinen bidez.



Gainera, administratzaileak ere arlo honetan kokatuko dira. Zehazki, hauen lana, pertsonetikiko informazioa administrazioa da, urte, genero nahiz data ezberdinez kokatuko den informazioa. Lanpostu hau dutenek, psikologoak egingo dituen tratamendu pertsonalak disenatzen lagunduko dute, jada antolatuta duen informazioarekin. Gordetzen den informazioa guztiz konfidentziala izango da, eta arlo honetan lan egiten dutenak ez ezik ez du inork hau eskuratzeko aukerarik izango. Hori dela eta, prozesuaren hasieran konfidentzial hitzarmen bat sinatuko da.

Beste alde batetik, erabiliko ditugun baliabide elektronikoak, ordenagailu aurreratuak izango dira besteak beste. Horretaz aparte, gailu elektronikoetaz gain, telefono linea bat egongo da telefono baten bidez jasoko dena.